

**13. (1451-1460)**





## 13.1. 1451. URTEA

**13.1.1. Batzarrak Tolosan, Arrasaten eta Azkoitian, etab.**

1451-IV-13an Tolosan, Joan Lopez Berastegikoaren etxean, Gipuzkoako Probintziako hiribildu eta tokietako prokuradoreak bildu ziren. Joan Gartzia Elduaiengoa, Tolosako alkatea, zen buru, eta Martin Santxez Elduaiengoa eskribau. Gipuzkoako Ermandadearentzat bederatzi ordenantza onartu zituzten. Helburua Ahaide Nagusiei aurka egitea eta bakea lortzea zen. Ahaide Nagusiekin ibilitakoak erregearen asegurura biltzea eskaintzen zen. Horrela salbu egongo ziren Ahaide Nagusien eskakizunetatik, eta Probintziak haiek babestu egingo zituen.

Arrasate erre ondoren, tratua egina zuten hiribilduek eta jauntxoek hari kalteak ordaintzeko, eta agindutakoa ordaindu egingo zioten Arrasateko hiribilduari. Lapurdi, Nafarroa, Oñati edo Aramaioko jendeak kalteak egiten bazituen, Gipuzkoako Ermandadeak lagundu eta babestu egingo zituen Probintziako kaltetuak, auzitara joandakoek justizia lortu arte<sup>1</sup>.

Urte berean, 1451-VIII-10ean, Arrasaten egin zituzten Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Joan Lopez Orokoaren etxean<sup>2</sup>. Bertara Zestoatik Joan Bergara joan zen prokuradore, eta Eneko Iraeta Zarauztik. Pedro Martinez Idiakaizkoa zen Azkoitiak Batzarrera bidalitako prokuradorea.

Batzar hartan Gipuzkoako Ermandadeak Arrasateko Zalgibarren (Çahalgubar-en) eta Zallospen Pedro IV.a Belez Gebarakoak izan zituen lur eta ondasunak Arrasateko hiribilduari 60.000 maraitan saldu zizkion. Aurrez Ermandadeko alkateek Pedro IV.a Belezi eta Zalgibarko dorreko alkaideari dei egina zioten beren delitu eta bidegabekeriez erantzun zezaten, baina ez ziren ermandade-alkateengana aurkeztu<sup>3</sup>.

Urte hartan Gipuzkoako Ermandadeak Batzar Bereziak egin zituen, 1451-IX-21ean, Azkoitiko hiri-

bildu ondoko Bizkargiko zelaian (orain Bizkargi kalea eta Bizkargi plaza dauden lekuan). Leinzko bailara Gipuzkoako Ermandadean sartzeko baldintzak ipini zituzten. Bestalde, Arrasateko hiribilduak Oñatirekin bildu eta hauek Gipuzkoara sartzeko elkarrekin baldintzak ere zehazturik zituzten. Ermandadeak ahalordea eman zion Arrasateri Oñatirekin ituna egin eta oñatiarrak Gipuzkoako Ermandadera sar zitezten.

Martin Perez Idiakaizkoa izan zen Batzar Berezi haitako eskribau<sup>3</sup>. Ez dirudi Oñatik Gipuzkoako Ermandadean, sartu baldin bazen, luze iraun zuenik<sup>4</sup>.

Garbi dago 1448an Arrasate erre zutenez gero Ahaide Nagusien botereak behera egin zuela. Gaztelako Joan II.a erregeak asmo hori zuen, eta hark izendaturiko Anton Ruiz Leongoak 1451-I-7an bere epaia argitaratu zuen.

Bestalde, Gipuzkoako Ermandadea berregituratu eta behin betiko erakundetu zen, eta Ahaide Nagusiei aurka egin zien. Ahaide Nagusiek ezin zuten Ermandadean parte hartu<sup>5</sup>. Aitzitik, Ermandadeak Oñatiko jaunak Arrasaten zuen Zalgibarko (oraingo Zaldibarko) dorrea eraitsi egin zuen, eta Pedro IV.a Belez jaunari 1.200 florin inguruko isuna ezarri zioten<sup>6</sup>. Urte hartan Aragoiko urrezko florinak 50 marai balio zituen<sup>7</sup>.

Beltran Ibañez Loiolakoa ahaide nagusiak lortu zuen 1451-XI-23an Arrasatekoek (hiribildua azpeitiarrek eta errejildarrek erretzeagatik) barka zezaten, baina horretarako ordaindu egin behar izan zuen<sup>8</sup>. Fortun Santxez Iraetakoak eta zestoarrek ere antzeko hitzarmena egin behar izan zuten arrasatearrekin.

Garai hartan Arrasateko Gesalibarren Joango Zestona Toda Ortiz emaztearekin bizi zen, eta senar-emazteek Otxoa Bañez Artazubiagakoari maileguz 4.153 marai hartuak zizkioten<sup>9</sup>.



13.1. irudia. Azpeitiko Loiola.

Gipuzkoako Ermandadea 1451an bat etorri zen Gipuzkoako Probintziako orduko lurraldearekin, eta Probintziakoe skribauf ielD omenjonG onzalez Andia-koa izaten 1451n, edo hurrengo urtean, hasi zen<sup>10</sup>.

1451. urte hartan Frantzia eta Ingalaterraren arteko Ehun Urteko gerra amaitu egin zen, frantsesek Baiona konkistatu zutenean<sup>11</sup>. Abuztuaren 21ean gertatu zen hori<sup>12</sup>. Gerra hartan Foixko kondea bere tropekin Lapurdira sartu zelako Gipuzkoako herriak armaturik prest egon ziren, behar izanez gero lurraldea defendatzearren<sup>13</sup>.

Nafarroan etsaituta ibili ziren Bianako Karlos Printzea eta Joan aita erregea, baina 1451ean Karlos printzeak amore eman eta aitaren mendera etorri zen. Nafarroara itzuli zen, zeina bi taldetan bananduta baitzegoen. Batetik agaramontarrak zeuden, Joan I.a erregearen aldekoak, eta bestetik beaumontarrak edo Karlos printzearen aldekoak. Aitak, ordea, semea preso hartu eta espetxeraturik eduki zuen urte eta erdiz<sup>13</sup>.

Iruñeko apezpikua, Martin Peralta “Zaharra”, Nafarroako Joan I.a erregearen alde agertu zen gerra zibilean. 1451. urte inguruan, hain zuzen, Gipuzkoako Kanpoko Ofizial Beltran Iraeta apaiza izendatu zuen. Bere senidea zuen irae tarra, baina ez dakigu zein mailakoa senidetasuna zuen. Hala ere, ohitura zen Gipuzkoan, Iruñeko elizbarrutian, Kanpoko Ofizial donostiarra eta bertako benefiziadu zena izendatzea. Beltran Iraeta ez zen, ez bata eta ez bestea, eta, ondorioz, apezpikuak hurrengo urteetan oztopo ugari izan zuen Aita Santuaren eraginez, donostiarrek eta Gaztelako erregeak Erroman hari beren desadostasunaren berri eman ziotelako<sup>14</sup>.

Kexu zen, halaber, Migel Martinez Engomezkoa donostiarra getariarrekin 1451-V-4an. Erregearen mesedez Getarian eskubideak zituen, eta zegokiona zuzenbidez eskuratzeko asmoa jakinarazi zien getariarrei<sup>15</sup>.

## 13.2. 1452. URTEA

## 13.2.1. Zestoa eta Errezilgo saroiak

Garai hartan Zestoa eta Errezilek saroiak zituzten erdibana Ernio aldean. Haiek erabili eta ustiatzeko Zestoa eta Aizarnak hiru arbitro epaile izendaturik zituzten: Joan Lopez Altzolaraskoa, Joan Lili eta Joan Martinez Akoakoa. San Martin Zallurroako kolazio-koek (Errezilgo lurrekoek), berriz, bi: Joan Martinez Galarragakoa eta Martin Otxoa Bildaingoa. Saroiak ikusi eta aztertu egin zituzten. Ondoren epaiaren berri eman zuten.

Honako saroi hauek ziren auzitan zeudenak: Intzitorbikoa (oraingo Antxiturbikoa) (hamabi gorabilekoa), Etumetakoa (sei gorabilekoa), Legarraldekoa

(sei gorabilekoa), Komisolatzakoa (sei gorabilekoa), Erdoiztakoa (hamabi gorabilekoa), Gallakuekoa (orain Galleku) (sei gorabilekoa), Barrensaroe (orain Barrenso) (hamabi gorabilekoa), Bedanburukoa (orain Belanburu) (sei gorabilekoa), Adaolatzakoa (orain Aldaolatza) (sei gorabilekoa), Gazumekoa (sei gorabilekoa), Zezenarriagakoa (sei gorabilekoa), Erniogurtzeagakoa (sei gorabilekoa), Elkamengoa (sei gorabilekoa), Elkamengo bestea (sei gorabilekoa), Reabiztakoa (Erdoiztakoa?) (sei gorabilekoa) eta Ezkurroakoa (hamabi gorabilekoa). Gorabilaren neurria Gipuzkoarako erabakitakoa da. Haustarritzatik zirkunferentziarainoko erradioa zen sei gorabilekoa edo hamabi gorabilekoa.



13.2. irudia. Errezilgo Intzitorbibekoa (Antxiturbibekoa) baserria.

Epaiak honako atal hauek izan zituen:

1) Aipatutako saroi horien guztien erdiaren jabe izango ziren betiko Zestoako hiribildua eta Aizarna.

2) Aipatutako saroiaren beste erdiaren jabe Errezilgo unibertsitatea izango zen. Errezilgo Joan Goenagak soro batzuk landuak zituen Artaunsaroen (orain Artaunso). Beraz, Joan Goenagak zortzi urtez eduki ahal izango zituen soroak, baina zortzi urte igarotakoan saroi osoa Zestoarena eta Errezilena izango zen erdibana.

3) Intzitorbiko (Antxiturbiko) saroiaren erabat Errezilena geratuko zen, bertan Zestoak parterik izan gabe. Ordainetan, Ezkurroako saroiaren Errezilek ez zuen parterik izango, eta erabat Zestoarena izango zen.

4) Errezilek Migel Ibañez Urrutikoari eta honen seme Martini Artaunsaroeke (oraingo Artaunso) bere erdia saldu egin zion. Hala ere, saroiaren beste erdia Zestoarena izango zen betiko. Martin Urrutiak bere erdia utzi nahi bazuen, lehen ordaindu zuena Errezilek emanda jabetza Errezilek berreskuratuko zuen. Joan Martinez Altzolaraskoak saroi horretan eskubideren bat zuela esaten bazuen, finkatu egin behar zuen eskubide hori.

5) Saroi horiek urdeak hazteko ezkurra edo beste bazkaren bat zutenean, Zestoak bi gizon izendatuko zituen eta Errezilek beste bi. Lau horiek, zin eginda, erabakiko zuten saroi bakoitzean zenbat urderentzako bazka zegoen, eta Zestoak urde edo txerrien erdiak bidaliko zituen bazkaterra, eta Errezilek beste erdiak.



13.3. irudia. Zestoako Ezkurroa baserria.

6) Bai zestoarrek eta bai errezildarrek beren unai eta abereentzat txabolak eta itxiturak ordura arte bezala egin ahal izango zituzten. Saroi haietako bakoitzean beren unai eta behitaldeak gau eta egun ibiliko ziren, ordura arte bezala, batzuek bestei oztopo egin gabe. Haritza eta beste edozein zuhaitz ebaki ahal izango zuten txabolak eta itxiturak egiteko edota konpontzeko. Behitaldeen jabeek nahi adina egur hartzeko askatasuna izango zuten.

7) Zestoako eta Errezilgo biztanleek ezingo zuten zuhaitzik bota saroi horietan, itxitura eta txabolen ondoan behiak zeuden eta etzaten ziren lekuetan.

8) Errezilek ohitura handiagoa zuen Elkamengo saroietako zuhaitzak eramaten, eta aurrerantzean ere halaxe jarraitu ahal izango zuen. Elkamengo saroietako itxitura eta txabolen ingurua arbitroek mugarritu egingo zuten, eta mugen barrutik inork ez zuen zuhaitzik botako. Mugen kanpotik bai, oholak egiteko, habeak egiteko eta abarretarako. Errezildarrek eramanez ahal izango zituzten, beren etxeak hornitu eta konpontzeko, baina ez saltzeko edo Errezildik kanpoko inori emateko.

9) Elkamengoak ez ziren gainerako saroietatik inork ezingo zuen zuhaitzik moztu saroiaren jabeen baimenik gabe, behitaldeen itxitura eta txabolen jabeek izan ezik. Azken hauek beren itxitura eta txabolak egin eta konpontzeko moztu ahal izango zituzten. Baimenik gabe zuhaitza botatzen zuenak, zuhaitz bakoitzagatik 48 maraiko isuna izango zuen (maraia = 10 kornadu). Isuna erdibana izango zen Zestoarentzat eta Errezilrentzat.

10) Alde batekoek zein besteke saroiaren zuhaitzak aldatzen bazituzten, zuhaitzak berez sortu balira bezala bi aldeek erdibana izango ziren.

11) Batzuetan gertatzen zen saroietako behiak saroiatik kanpo joan eta Errezilgo herri-lurretan ibiltzea. Horretarako aske izango ziren eta ez zuten

isunik ordainduko, beti ere, saroietako behi eta zezanak baziren. Errezildarrek ziotenez, unibertsi-tateko etxe eta baserrietako behiek ere eskubide zuten herri-lurretan larratzeko. Beren eskubidea erabili ahal izango zuten.

12) Zestoarrek eta errezildarrek ezingo zituzten aipatutako saroietara beren jurisdikzioak ez ziren behiak eramanez bi alderdien baimenik gabe. Bestela isuna izango zuten.

13) Zestoak saroi guztietan edo saroi bakoitzean zuen parte saldu nahi bazuen, Errezilek erosi beharko zuen, eta ez beste inork. Gauza bera gertatuko zen Errezilek saldu nahi bazuen. Erosten bakarria Zestoa izango zen. Saroi horietako mendiak alde bati edo besteari erositara zeuzkatenak salbuetsi egingo ziren.

14) Zestoako hiribilduak egur batzuk moztu eta erabili zituen, baina Joan Migelez Landerraingoa errezildarrak hartu eta landuta zeuzkan saroi horietan. Zestoak 25 florin (1 florin = 20 sos zahar) ordainduko zizkion Joan Migelezi hogeitun eguneko epean.

15) Zestoak Legarraldeko saroiaren ordura arte edonork egindako zuhaitz-mozketengatik ordaina jaso ahal izango zuen. Errezilek ez zuen horretan parterik izango. Errezilek ez zituen babestuko zuhaitzak moztu zituztenak, ez eta kaltea egin zutenak ere, Errezilgo auzotarrak izanagatik edo kaltea Errezilek aginduta nahiz onartuta eginagatik.

16) Auzi hartako gastuei zegokienez, Kontzeju bakoitzak bereak ordainduko zituen.

Epaia Zestoako Pagarten (Etumeta inguruan) eman zen, lekuko honako hauek zirela: Antso Barrenola, Joango Altzolarats (Joan Lopez Altzolaraskoaren semea), Martin Arreo, Pedro Ipentza (Ipintza) eta Otxoa Odria zestoarrak, eta Joan Goienaga (Goenaga), Joan Gartzia Arzalluskoa eta Lope Urteaga errezildarrak.

Zestoako Eneko Lili eta Errezilgo Joan Migelez Landerraingoa izan ziren eskribauak (ikus [XV. m. 16] agiria).

Epaian saroiaren erabilpena eta ustiapena oso zehatz arautzen da. Garbi dago saroiaren basoari garrantzi handia ematen zitzaiola. Egurra estimatua zen, etxe-ko su-egurretarako, ikazkintzarako, zurgintzarako eta ontzigintzarako, besteak beste.

Saroiaren, abelazkuntzari dagokionez, behi-taldeak ziren nagusi, baina bere garaian (udazkenean ezkurretara eramanda) urdetaldeak ere erabiltzen zituzten. Ardien aipamenik ez dago; izan ere, unaiak (edo behizainak) aipatzen dira agirian, baina artzainik ez.

Arteunsaroe edo Arteunsonon Joan Goenaga erre-zildarrak soro batzuk landurik zituen, hau da, “mendisoroak” edo “larresoroak” zituen. Ez zuten onartu ohi horrelakorik saroiaren, eta zortzi urteko epea eman zioten soroak utz zitzaizkien. Hala ere, garai hartako nekazaritzaz testigantzak urri dira, eta hau dugu horietako bat. Saroia, izan ere, abelazkuntzako eta basogintzako ustiapena zen batez ere.

Behiek batzuetan saroiak irten eta herri-lurretan bazkatzen ziren, baina horregatik ez zuten isunik ordainduko. Errezilgo etxeetako behiek ere horretarako eskubidea zutela dio agiria, hain zuzen mendian “larrabehiak” edo “betizuak” edukitzen zituztelako.

Bestalde, saroiaren erdiaren jabeak batetik Zestoako hiribildua eta Aizarna ziren, eta bestetik Errezil. Badirudi lehendik ere, Zestoako hiribildua 1383. urtean sortu baino lehen ere, Aizarna eta Errezil erdibana zirela saroi horien jabe.

Agian kontuan hartzekoa izango da Legarralde izeneko saroiaren Zegondiaren (Txorondegiren) ondoan egotea, legar hitzaren esanahietako bat zepa izan daitekeelakoan eta Burdin Aroaz gero bertan burdina landu izan zitekeelakoan.

Dena dela, saroiak etxerik gabeko lekuetan zeuden. Horregatik egiten zituzten txabolak bertan. Aizarnan azken etxeak garai hartan (1452an) Egaña eta Ezenarro ziren, eta hortik hegoaldera Santa Engraziatik Bedama eta Ernio mendiraino zeuden aipatutako saroiak. Etxerik ez zegoelako egiten zituzten txabolak (etxolak edo bordak).

Gainera, ondoko 13.4. irudian garbi ikusten da 12 gorabileko erradioko saroiak (negukoak) ipar edo itsaso aldera daudela, altitude txikienean. Udako saroiak, berriz, 6 gorabileko erradiokoak dira eta Ernio mendi aldera daude, hots, altitude handieneko lekuetan.


Zestoan saroiaren beste gune bat Etorra aldetik Ondarbaso alderainokoa zen. Orain arte Agireta eta Ariako saroiak gune horretan azaldu zaizkigu, eta aurrerantzean beste batzuk ere bertan kokatuko ditugu. Horiez gain aipatu beharrean gara Iraetako saroiak (Sabea), Indo aldeko Kardel, Pagio aldeko Sarobetxe (edo orain Sarabetxo ahoskatzen dena) eta Txiriboga ondoko Kortazar. Azken bi hauek saroi direla berariaz aipamen idatzietan ez dugu aurkitu, baina izenek horixe iradokitzen dute, hau da, saroi izan zirela.

### 13.2.2. Segura, Hernani eta Donostiako Batzarrak, etab.

1452-I-11n Seguran Gipuzkoako Batzar Nagusiak bildu ziren, bertan Ermandadeko eskribau fiel Domenjon Gonzalez Andiakoa zela<sup>4</sup>.

Badirudi beste Batzar Nagusi batzuk Hernanin urte berean abuztuaren 24a baino lehen egin zirela, Arrasateko agiri batean aipatzen denez gero<sup>16</sup>.

Hurrengo Batzar Nagusiak Donostian egin ziren, urte bereko irailean. Bertan erabaki zenez, Ermandadeko eskribau fiel zen Domenjon Andiakoa ez zegoen Probintziatik irten eta Batzar guztietan egon beharko zuen. Bestela, ordezkioak utzi beharko zituen<sup>4</sup>. Badirudi Domenjon Batzar batzuetara ez zela joan eta Ermandadearen martxa ez zela egokia.



1. Intzitorbia (Antxiturbia) (12)
2. Etumeta (6)
3. Legarralde (6)
4. Komisolatza (6)
5. Erdoizta (12)
6. Galleku (6)
7. Barrenso
8. Belanburu (6)
- 9? Aldaolatza (6)
10. Gazume (6)
11. Zezenarriaga (6)
12. Erniogurutzeaga (6)
13. Elkamen I (6)
14. Elkamen II (6)
- 15? Reabizta (6)
16. Ezkurroa (12)
17. Artaunsoro (?)

9? eta 15? sarioak non zeuden ez dakigu

Parentesi artean sarioa 6 edo 12 gorabileko erradiokoa den zehazten da

E: 1/25.000

Horregatik 1452-IX-7an aipatutako erabakia hartu zuten. Batzarrera etortzen ez bazen, gai guztietan jakinaren gainean zegoen ordezkoa utzi beharko zuen<sup>17</sup>. Horretarako bere soldata emango zitzaion.

Donostiako Batzar Nagusiak Santa Anako lehen solairuan bildu ziren. Martin Perez Gasteizkoa zen hiribilduko alkate<sup>16</sup>.

1452. urtean, hain zuzen, Gipuzkoako korrejidore eta prestamero nagusi Joan Hurtado Mendozakoa zen<sup>18</sup>.

Urte hartan Getarian lan handiak egin zituzten harresiak eta portuko kaiak konpontzen, itsasoak hondatu egiten zituelako. Ondorioz, Gaztelako Joan II.a erregeak 1452-XII-30ean baimena eman zion hiribilduari arrantzarako leku batzuk aloka zitzaion<sup>15</sup>.

Garai hartan, Bilbon Joana Lili izeneko neskameak Pedro Irusta eta Marina emaztea auzitara eraman zituen. Bost hilabetean neskame ibili zen haiekin, eta

agindu zioten soldatarik ez zioten ordaintzen, ez eta arroparik ere. Tratu txarrak eman zizkieten etxe hartan, eta azkenean bota egin zuten. Etxean zituen arropak eramaten ere ez zioten utzi<sup>19</sup>. Ez dakigu Bilbon bizi zen Joana Lili neskamea Zestoako lilitarretakoa zen ala ez. Hala ere, ez dugu uste Bizkaian Lili etxerik zegoenik.

Baserrietan ohikoa zen orduan etxeko ondare osoa oinordeko bakarrari ematea, ondarea zati ez zedin. Ohitura hura, eta Bizkaiko Foru eta usadioak, 1452an idatzitako Bizkaiko Foru Zaharrean jasotzen dira<sup>20</sup>. Bizkaiko Forua idazteko agindua 1452-VI-2an eman zen, eta bere testu osoa argitaratu dutenetako bat E. Labairu historialaria da<sup>12</sup>.

1452-III-10ean, bestalde, Aragoiko Zauze (Sos) herrian Nafarroako Joan I.a erregearen eta Joana Enriquez emaztearen Fernando semea jaio zen, hau da, gero Aragoiko Fernando II.a *Katolikoa* izango zena. Fernando hau, beraz, Bianako Printzearen anaiordekoa zen<sup>13</sup>.

### 13.3. 1453. URTEA

#### 13.3.1. Beltran Iraeta eta Fortun Santxez Iraetakoa

1451. urteko albisteetan esana dugunez, Iruñeko Martin Peralta “Zaharra” apezpikuak bere senide Beltran Iraeta izendatu zuen Gipuzkoako Kanpoko Ofizial, lehengoa (Antso Engomez) hil egin zelako. Ohitura zen, ordea, Kanpoko Ofiziala donostiarra eta Donostiako elizaren bateko benefiziadu izatea, eta Beltran ez zen, ez bata eta ez bestea. Orduan Donostiako hiribildukoek beren kexa agertu zuten, baina apezpikuak ez zien jaramonik egin.

Ondoren, donostiarrek Nikolas V.a aita santuarengana jo zuten, eta honek auzia Gillermo Fondera epailearen esku utzi zuen. Orduan zurrumurrua zabaldu zen, alegia, apezpikuak baimena emango ziola Beltran Iraeta apaizari Donostian bizi gabe bere kargua erabil zezan.

Une hartan Gaztelako Joan II.a erregeak parte hartu zuen, eta Aita Santuari Donostiaren alde egin zezala eskatu zion, leku egokiena zela eta bandoetako gerran ez zuela parte hartu argudiatuta. Ondorioz, Nikolas V.a aita santuak 1453-V-15ean auzia Urdazubiko abadearen eta Baionako Joan Nivers eta Joan Auro kalonjeen esku utzi zuen. Ikertu egin behar zuten Martin apezpikuak egin zuena, eta gertaturikoa egia baldin bazen, Beltran Iraeta kargutik kendu eta donostiar benefiziadua izendatu behar zuen apezpikuak. Apezpikuak Beltran kargutik kentzen ez bazuen, izendatutako hirurek kendu eta donostiarren bat aukeratuko zuten, eta hura ezingo zuen Iruñeko apezpikuak kargutik kendu, baldin eta delitu izugarriak egiten ez bazituen (ikus [XV. m. 17] agiria).

Baionako Joan Nivers kalonjeak, hiru epailetako batek, gertaturikoa ikertuta epea ipini zion Martin

Peraltari senide iratarra kargutik ken zezan, baina Iruñeko apezpikuak ez zuen horrelakorik egin. Orduan Joan Niversek berak Beltran kendu eta Pedro Colongas donostiar benefiziadua izendatu zuen bizialdi osorako Kanpoko Ofizial. Hari eman zion Ofizialtzako zigilua.

tsi zuen, eta bizialdi osoan izan zen Kanpoko Ofizial Donostian, gorabeherak izan bazituen ere<sup>21</sup>.

Garai hartan desadostasunak maiz izaten ziren Elizako agintarien eta erreinuko agintari zibilen artean, zenbait kargutarako izendapenak zirela medio. Hain



13.5. irudia. Iraetako Errota etxea.

Orduan Martinek eta senide Beltranek Aita Santuarengana jo zuten, eta honek Agapito Rusticis-en esku utzi zuen auzia. Berehala ziren donostiarrak Aita Santuarengana joanda, auzia gehiegi luzatzea ez zela komeni esanez. Gaztelako Joan II.a erregeak eskatuta, Nikolas V.ak Baionako Gartzia apezpikuari agindua eman zion 1453-VI-1ean. Ikertu egin behar zuen Joan Niversek egindakoa zuzen zegoen, eta, hala baldin bazen, Iruñeko apezpikuak emandako aurkako aginduak deuseztatu egingo zituen. Ontzat emango zuen Joan Niversek egindako izendapena (ikus [XV. m. 18] agiria).

Baionako apezpikuak Pedro Colognas berretsi egin zuen Kanpoko Ofizial gisa, eta Beltran Iraeta kargurik gabe geratu zen. Auzi hura zela eta, nafarrak eta gipuzkoarrak elkarren aurka zeuden, eta Gaztelako zein Nafarroako erregeek parte hartu behar izan zuten. Aita Santuak, dena den, Pedro Colognas one-

zuzen, aspaldi, Urbano II.a aita santuak Hispaniako errege eta noblei eskubidea eman zien beren lurretan zeuden elizetako hamarrenak atxikitzeko. 1453. urtean Nikolas V.a aita santuarengandik Pedro Perez Idiakaizkoak Azkoitiko Baldako Andre Mariaren elizako erretore-kargua lortu zuen, baina Gaztelako Joan II.a erregeak Aita Santuarengana jo zuen Ladron Baldaren alde, Idiakaizkoari kargua ez zegokiolarako. Orduan Aita Santuak, 1453-XI-15ean, auzia ebazteko Burgosko eta Palentziako apezpikuak izendatu zituen<sup>22</sup>.

1453-XI-23an, zestoarren eta Fortun Santxez Iraetakoaren Joan Bergara prokuradorea Arrasaten zen. Urte batzuk lehenago (1448an) Iraetako Ahaide Nagusia eta zenbait zestoar herriari eta elizari su ematen ibiliak ziren, eta Zestoako Kontzejuak konpromiso batzuk hartu zituen Arrasateko San Joan Bataiatzailearen eliza berreraikitzeko. Bandako orde-

naren ikurra zuten urrezko ehun dobla ordainduko zituzten Zestoako Kontzejuak eta Fortun Santxez Iraetako jaunak lau epetan. 25 dobla ordaindu zituzten 1453-XI-23an, hau da, lehen epeari zegokiona (ikus [XV. m. 19] agiria).

Joan Martinez Salinas edo Gatzagakoa eskribauak eta Joan Perez Oleagakoa prokuradoreak eman zuten ordainagiria, Martin Otxoa Zilaurrengoa eskribauak idatzitakoa. Lekuko izan ziren Iñigo Ibañez Gomis-tianokoa apaiza, Gartzia Abarrategi, Lope Perez Mendiolakoa eta Martin Otxoa Olabarrietakoa arrasatearrak.

Fortun Santxez Iraetakoak beste asmo bat ere bazuen 1453. urtean. Getariako probestutza bere etxeari zegokiola uste zuen, eta horretarako bere eskubideak defendatzen saiatu zen. Dena den, 1453-X-14an Valladolidko Kantzelaritzak eskubide horiek ez zizkion onartu eta Getariako probestu izan gabe geratu zen<sup>15</sup>.

Bizkaian Ahaide Nagusien joerari jarraituz, Zornotzako Euba aldean dagoen Bernako etxeari eraso, su eman eta eraitsi egin zuten. Horren ondorioz Durangoko herriak auzia zuen, eta 1453-XI-5ean bertako biztanleek prokuradoreak izendatu zituzten. Biztanle horietako bi Lope Zestona zurgina eta Joan “Luze” Lili ziren, gure ustez Durangon bizi ziren zestoarrak. Lope Zestona aitzogilea 1443-III-13an azaldu zitzaigun Durangoko auzotar gisa, eta orain zurgina dela dio agiriak. Joan Lili ere azaldu zen 1443an, eta orain “Luze” ezizena gehituta aipatzen da<sup>23</sup>.

### 13.3.2. Batzarrak Bidanian, Arrasaten, Erreterian eta Ordizian

1453-IV-5ean Bidaniko San Bartolome elizan Gipuzkoako Batzar Bereziak bildu ziren. Bertan Ermandadeko Domenjon Gonzalez Andiakoari Batzarretan egon beharra ezarri zioten. Batzar-egun bakoitzeko berrogeita hamar marai zuriko soldata ordaintzea erabaki zuten<sup>4</sup>.



---

13.6. irudia. Bidegoian. San Bartolome eliza.

1453-IV-23an Gaztelako Joan II.a erregea kexu zen Gipuzkoako egoeraz. Palentziako Dueñas herrian sinatutako agirian zioenez, Gipuzkoan jo eta su izaten zen gerra bertako biztanleen artean, eta mairuen aurka baino amorru biziagoaz borrokatzen zuten elkar. Hiribilduei su ematen zieten, lapurretak noiznahi izaten ziren eta jende ugari hiltzen zen bandoen arteko gerran. Korrejidoreek justizia ezartzeko ahaleginean huts egiten zuten. Horregatik, Ermandadeko Koadernoan zeuden Ordenantzak betetzea agindu zuen<sup>24</sup>. Erregearen ordezkari gisa, Gipuzkoako korrejidoreak eta alkate nagusiak eskubidea zuten ermandade-alkate axolagabe edo zabarrei isunak ezartzeko<sup>7</sup>.

1453-VI-11n Gaztelako erregeak zedula bidali zuen Ermandadeko justiziatik ihes egitearren mugak zeharkatu eta beste lurraldeetara joaten ziren gaizkileen aurka. 1453ko Ordenantzetan onartu egin zen Gipuzkoako alkate nagusiak apelazio-epaitegia edukitzea, eta horretarako prozedura zehaztu egin zen. Esan beharra dago Ermandadeko alkateek epaitzekoak bost kasu izaten zirela: bidean eta bidetik kanpo lapurtzea edo ebastea, indarkeria erabiltzea, etxeak edo baserriko ondasunak hondatu edo erretzea, fruta-arbolak edo burdinolako hauspoak moztea edo puskatzea eta norbait zauritu edo hiltzeko amarruak erabiltzea<sup>5</sup>.

Ordenantzetan ermandade-alkateen boterea indartu egiten zen. Urte hartan, hain zuzen, Gipuzkoako Ermandadeak Oiartzun eta Errenterian arteko auzian erabakia hartu zuen. Oiartzunek Gipuzkoako Batzarretan ez zituen bere ordezkariak zuzenean izango. Errenteriako prokuradoreak haien ordezkari ere izango ziren<sup>24</sup>.

Garai hartan erabaki zuten, halaber, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Berezietan hiribildu bakoitzak gelan zein leku izango zuen. Eskuineko aldean Donostia, Hondarribia, Zarautz, Usurbil, Urretxu, Orio eta abarreko prokuradoreak eseriko ziren, eta eskuin aldean Tolosa, Segura, Arrasate Bergara, Ordizia, Errenteria, Getaria, Zestoa, Zumaia, Eibar, Sora-

luze, Leintz eta abarreko ordezkariak. Erabakiak hartzerakoan botoa emateko ordena ere ezarri zen: Donostia? Tolosa, Segura, Azpeitia, Arrasate, Azkoitia, Bergara, Ordizia, Deba, Mutriku, Elgoibar, Azeria, Errenteria (Batzar Berezietan Errenteria Azeria aurretik), Hondarribia, Getaria, Zestoa, Hernani, Zumaia, Zarautz, Eibar, Elgeta, Usurbil, Soraluze, Urretxu, Saiaz, Aiztondo, Orio, etab. <sup>10</sup>.

1453ko apirilean Arrasaten, Joan Lopez Orokoaren etxeetan, bildu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Oiartzuni debekatu egin zitzaion lehenago prokuradoreak zuzenean Batzarretara bidaltzea, eta araua hausten bazuten urrezko mila doblako isuna jarriko zitzaizela jakinarazi zieten<sup>4</sup>.

Gipuzkoako hurrengo Batzar Nagusiak 1453ko ekainean Errenterian ospatu ziren. Bertan ilaren 14ko saioan Pasaiako portua zein hiribilduren jurisdikzioa izango zen erabaki zuten. Marea goian zela busitzen ziren lurrak erdibana izango ziren Donostiarenak eta Errenterianak, eta han eginda zeuden etxeek zerga ordainduko zuten. Ez zen, ordea, beste etxerik eraikiko leku hartan.

Gipuzkoako hurrengo Batzar Nagusiak Ordizian bildu ziren, abenduan bildu ere. Abenduaren 5eko saioan Errenterian Pasaiako portuaz erabakitakoa berretsi egin zuten<sup>4</sup>.

1453-VI-2an, Gaztelako Joan II.a erregearen begiko eta kondestable urte askoan izandako Alvaro de Luna jaunari lepoa moztu zioten, Valladoliden epaiketa laburra egin ondoren. Besteak beste, erregea behartu egin zuen, alargundu zenean, Isabel Portugalgoarekin ezkontzera. Portugalgo Enrike *Nabigatzaillea* erregearen iloba zen Isabel, haserrekorra eta nabarmena. Erotuta hil zen, baina bere bizialdian indartsu eta maltzur jokatu zuen, eta azkenean lortu egin zuen erregeak inguruko guztiek Alvaro de Luna jaunaz zituzten kexak bere egitea.

Joan II.a erregeak bigarren emazte Isabelengandik Alfonsito semea eta Isabel alaba izan zituen. Azken

hau gero Fernando *Katolikoaren* emazte eta Gaztelako Joana *Eroa* erreginaren ama izango zen<sup>26</sup>.

Nafarroan, berriz, 1453an Bianako Karlos Printzea preso zeukan aita Joan I.a erregeak Zaragozan. Espe-txean zegoela printzeak zioenez, ama Blanka hiltzear zela idatziz utzi zuen agindua hau izan zen: hura hil ondoren Karlos errege altxa zezatela. Agiri haren

berri eman zion Karlosek aitari, baina honek hautsara-zi egin zuen Bianako Printzearen kaltetan. Karlos Zaragozan preso 1453ko urtarrilaren 9tik maiatzaren 21a edo 23a arte egon zen<sup>13</sup>.

1453-V-23an Konstantinopla hiria turko otomandarrek hartu zuten, eta horrela eman zitzaion amaiera Erromatarren Ekialdeko Inperioari<sup>26</sup>.

## 13.4. 1454. URTEA

### 13.4.1. Zestoaren bigarren ordainketa, Batzarrak, etab.

1454-X-29an, Zestoako Kontzejuak bidalita, Joan Bergara prokuradorea Arrasaten zen. Hiribildua 1448an erre zutelako San Joango eliza konpontzeko Zestoa urrezko 100 dobla ordaintzekoa zen. 1453an 25 dobla ordainduak zituen, eta 1454-X-29an beste hogeita bost dobla (Bandako ordenaren ikurra zutenak) eman zizkion Joan Bergarak Joan Martinez Salinas edo Gatzagakoa eskribauari. Honek ordainagiria luzatu zion zestoarrari, Iñigo Legarreta, Martin Legarreta eta Joan azpeitiarra harginak (eliza eraikitzen ari zirenak) lekuko zirela (ikus [XV. m. 20] agiria). Aipagarria da agiri honetan Zestoako Kontzejuarekin batera Fortun Santxez Iraetakoa ahaide nagusia ez azaltzea; aurreko urteko ordainagirian berariaz aipatzen baitzen (ikus [XV. m. 19] agiria). Fortun iratarra izan zen Zestoako laguntzaileak zituela 1448an Arrasate erretzen ibilitako bat.

1454. urteko maiatzean Gipuzkoako Batzar Nagusiak Deban bildu ziren. Bertan, besteak beste, Pasaia-ko portuaz Errenterian aurreko urteko Batzar Nagusian erabakitakoa berretsi egin zen<sup>4</sup>.

Urte bereko irailean Zarautzen bildu ziren berriz Gipuzkoako Batzar Nagusiak, eta Azkoitian berriz azaroaren 25ean. Domingo Saroberri eta Joan Fernandez Idiakaizkoa ziren orduan Azkoitiko alkate<sup>16</sup>.

Aurreko bi urteetan Ahaide Nagusiak geldirik egon baziren ere, baretasunak amaitu egin ziren 1454.

urtean. Lehenbizi Tolosan eta gero Oiartzunen gatazka izan zituzten. Urte amaieran Oiartzungo dorreetan legegabeko 60 gizon zeuden bilduta. Gipuzkoa osora zabaldu zen ezegonkortasuna, baina Ermandadea gero eta gogorrago hasi zen jokatzeko Ahaide Nagusien aurka. Ermandadeak Oiartzungo auzotarrei debekatu egin zien legegabeei laguntzea, baina agindu hari ez zioten jaramonik egin<sup>24</sup>.

Ermandadeko Ordenantzetan 1454an Gipuzkoan zebiltzan juduak aipatzen dira; izan ere, ezin zuten seinalea soinean eraman gabe ibili<sup>27</sup>.

1454-VII-21ean Valladoliden Gaztelako Joan II.a erregea hil egin zen<sup>12</sup>. Enrike IV.ak hartu zuen erreinuko agintea, eta 1454-IX-25ean Avilako Arevalo herrian Gipuzkoa, Bizkaia eta Enkartzatutako Ermandadeak mantentzea agindu zuen<sup>5</sup>. Gaztela, Aragoi eta Nafarroaren artean zegoen bake-ituna ere berretsi zuen<sup>13</sup>.

Gaztelako errege berriak, Enrike IV.ak, 1454-IX-5ean Oñatiko Pedro IV.a Belez Gebarakoari agiria egin zion Valladolidko Armesillasko monasteriotik (Santa Maria de Armedillatik) Uzarragako eta Bergarako Oxirondoko monasterioetan zituen eskubideak errespetatu zitezen. Joan II.a erregeak ere egin zizkion lehenago beste bi agiri (1452-IX-6an eta 1453-III-4an). Oñatiko jaunak Pedro Hernani abadea prokuradore izanik Bergarako Kontzejuari hiru agiriak erakutsi zizkion, haren monasterioetan apaizek jaunaren eskubideak errespetatu zituzten<sup>28</sup>.



13.7. Bergara. Santa Marina Osirondokoa.

## 13.5. 1455. URTEA

### 13.5.1. Batzarrak Tolosan, Errenterian eta abarren. Ermandadea lanean

1455-I-6an Tolosan Gipuzkoako Batzar Bereziak bildu ziren. Batzarrei Bizkaia eta Gipuzkoako Ermandadeak mantentzea agintzen zuen zedula, Joan II.a erregearena, bete zedila eskatu zieten<sup>27</sup>.

1455-I-8an Gaztelako Enrike IV.a erregeak epaia eman zuen Valladoliden Fernando Bernak Durangoko Tabirako hiribilduarekin zuen auzian, lehenengoari Bernako dorrea eraitsi egin baitzioten<sup>23</sup>. Tabirako biz-

tanleetako bat Joan “Luze” Lili dugu, hots, gure ustez Durangon bizi zen zestoarra.

1455-I-22an Gaztelako Enrike IV.a erregeak zedula eman zuen, eta bertan Gipuzkoako prokuradore zen Lope Saez Elduaiengoa Batzarraren izenean joan zitzaioela zioen. Erregeak gutuna eman zion Probin-tziari, eta debekatu egin zuen prozedura judizialaren faltan epaiak deuseztatzea. Prozedura laburra erabil zitekeen, egia jakinda, nahiz eta zuzenbideko forma eta ordena bete ez<sup>31</sup>. (Agiri osoaren transkripzioa “Bolloidun Liburuan” ikus daiteke)<sup>10</sup>.

1455-I-23an Gipuzkoako Batzar Bereziak Errenterian bildu ziren, eta bertan Arrasateko ermandadealkateak 1454-XII-21ean Gaztelako Enrike IV.a erregeak Arevalon egindako zedula aurkeztu zuen<sup>29</sup>. Errenteriako Batzar hauek aipatzen ditu, hain zuzen, 1455-XII-21ean Arevalon erregeak emandako zedula batek, zeinak Gipuzkoako Probintziari Ermandadea mantentzeko baimena ematen baitzion<sup>4</sup>.

Gipuzkoako Batzarrek bidalitako eskeari erantzunez emandakoa da Lope Santxez Elduaingoak Arevalon erregearengandik 1455-II-13an jasotako Ahaide Nagusien desafioei buruz diharduen agiria.

1455-III-25ean Segovian egindako agiriaren bidez, erregeak bere gain hartu zituen Gipuzkoako eta Bizkaiko Ermandadeei buruzko auziak<sup>5</sup>.

1455-IV-30ean Enrike IV.a erregeak Sevillako Ecijan gutuna egin zuen Gipuzkoako Probintziako alkate, prokuradore, diputatu, ofizial edo beste edonori barkamena emanaz. Badirudi Ermandadea indartuta Ahaide Nagusiei eta bandokoei gogor aurka egitea nahi zuela erregeak<sup>16</sup>. Gipuzkoako Ermandadean diputatuak gutxienez 1455. urteaz gero izan zirela esan dezakegu<sup>31</sup>.

Hurrengo Azkoitiko Basarten Batzar Bereziak egin ziren, eta bertan Ermandadeak hiribilduetatik bandoetako gorabeherak aldendu egin nahi zituen. Horren adierazgarri da Arrasateri buruz Batzarretan hartutako erabakia: Otxoa Bañez Artazubiagakoari eta Errodrigo Ibañez Abendañokoari agindua eman zieten Arrasateko hiribilduko portaleetako giltzak Kontzejuaren esku utz zitzaten<sup>16</sup>.



13.8. irudia. Azkoitiko Basarte baserria, Batzar Bereziatarako bilgunea.

1455-V-10ean Seguran Batzar Nagusiak ospatu ziren. Pedro Gartzia Larragakoa Segurako alkatea eta Domenjon Gonzalez Andiakoa eskribau fiela ziren bertan. Orreagako komentua eta Joan Beltran Atxaga ados jarri ziren Usurbilgo mendien ustiapenaz<sup>4</sup>.

1455-VII-21/23an Oiartzunen bildu ziren Gipuzkoako Batzar Bereziak. Bertan uztailaren 23an Martin Ruiz Ganboakoak (Olasoko jaunak) eta Aleriako alkate Martin Lopez Lazkanokoak, aurrez arbitro eta epaile izendatu zituztenek, beren erabakiaren berri eman zuten Oiartzungo Apezetxean. Probintzia eta Oiartzungo bailarako biztanleak etsaituta zeuden, azken hauek matxinatu eta gehiegikeriak egin zituztelako.

Auzitan ibiliak ziren, eta, azkenik, aipatutako arbitroek epaia eman zuten. Epaian bi alderdiek elkarri barkatu egingo zizkioten egindako okerrak<sup>33</sup>. Txope Isasti eta Martin Got-i<sup>32</sup> lapurreta egin ziotela esaten da. Oiartzunek erregearen auzitegietan Probintziaren aurka zituen prozedurak kendu egingo zituen. Aurreantzean Oiartzunek zintzo jokatu zuen Ermandadeko kide gisa. Oiartzungo Batzar Berezietan Azpeititik, besteak beste, Joan Martinez Lasakoa joan zen. Zestoatik, berriz, Joan Bergara prokuradorea, Martin Diaz Lilikoa eta Joan Zelaia. Domenjon Gonzalez Andiakoak, erregearen ganberako eskribauak, eta Joan Ibañez Arteagakoa eskribauak idatzi zituzten Batzar haietako aktak. Auzian parte hartutako alderdiek San Esteban Lartaungoaren elizan zin egin zuten<sup>33</sup>.

Gipuzkoako Ermandadeak uztailaz gero bandoeta-koen zenbait dorreri eraso egin zion, eta jauntxoek elizetan zituzten patronatu-eskubideak ukatu egin zitzaizkien<sup>24</sup>.

Urte hartan, urrian edo azaroan seguruenik, Zestoako Kontzejuak bidalita Joan Bergara Arrasatera

joan zen. Hango elizako Joan Martinez Gatzagakoa eskribauari urrezko hogeita bost dobla (Bandako ordenaren ikurra zutenak) ordaindu zizkion. Hirugarren ordain aldiari zegozkion 25 dobla haiek (urtero 25 dobla ordaintzeko konpromisoa zuten Zestoako Kontzejuak eta Fortun Santxez Iraetakoak), eta San Joango eliza (1448an erretakoa) konpontzeko erabiliko ziren. Lekuko izan ziren Iñigo Ibañez Gomistianokoa (Arrasateko eta Leinzko artzapez-barrutiko bikarioa), Joan Gomistiano eta Gartzia Abarrategi arrasatearrak. Joan Martinez Salinas edo Gatzagakoa eskribauak idatzi zuen ordainagiria (ikus [XV. m. 21] agiria).

1455-XII-8an izan ziren urteko azken Batzar Nagusiak, Zarautzen izan ere. Joan Otxoa Ormaetxekoa zen hiribilduko alkate.

1455-XII-24an Enrike IV.a erregeak hau agindu zuen: Gipuzkoako Probintziako legegabeak beste inon ez zitzatela hartu. Gipuzkoako Ermandadeko prokuradoreek, gainera, Joan II.a errege zenaren gutuna erakutsi zioten, eta Enrike erregeak berretsi egin zuen<sup>16</sup>. Orduan Ermandadea Iñigo Martinez Zaldibikoa batxilerrarekin auzitan zen. Hain zuzen batxilerra preso hartu eta Zestoako Liliko dorretxean eduki zuten. Etxeak hondatu egin zizkioten, eta erbestertzeko mehatxu egin zioten<sup>5</sup>.

1455. urtean Oñatiko Pedro IV.a Belez Gebarakoa hil egin zen. Urrian Medina del Campoko ferietan izan zen, baina helmuga inguruan, Rodillana herrian, gaixotu eta testamentua egin zuen. Alaba batzuk utzi zituen, baina ezkontzatik kanpo. Beraz, ondasunak anaia Iñigo Belez Gebarakoari utzi zizkion. Iñigo Erroman zen orduan elizako ikasketak egiten. 1455-XI-27an Enrike IV.a erregeak Pedro IV.a Belezen ondasunak bahitu egin zituen oinordetzako auzia argitu bitartean<sup>34</sup>.

## 13.6. 1456. URTEA

### 13.6.1. Ermandadeko Batzarrak eta Iraeta

1456-I-31n Tolosan bildu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Lope Otxoa Olazabalgoa zen orduan Tolosako alkate<sup>16</sup>. Domenjon Gonzalez Andiakoa zen, berriz, Batzarreko eskribau fiela<sup>4</sup>. Arrasaten kaltetuei ordaintzeko beste Ordenantza batzuk eman ziren<sup>29</sup>.

Hurrengo Batzar Nagusiak Donostian egin zituzten, ekainaren 16an. Otxoa Lopez Olazabalgoa eta Bizente Estiron ziren orduan Donostiako alkateak<sup>16</sup>.

1456-VI-15ean Gaztelako Enrike IV.a erregeak gutuna idatzi zuen Sevillan. Bertan Ermandadeek epaitzen zituzten auzietan besteei parte hartzea debekatu egin zien. Ermandadeko alkate eta ofizialek beren lana egin behar zuten Ordenantzek ziotena beteta, Gipuzkoan bakea izan zedin. Gipuzkoarrek Ahaide Nagusien mendetik irten egin behar zuten<sup>10</sup>.

1456-VI-18an Kalisto III.a aita santuak (Alonso Borja edo Borgia izenekoak) agiri bat sinatu zuen Donostiako Kanpoko Ofiziala bertakoa eta bertan benefiziadu zena izango zela aginduz. Beraz, Beltran Iraetak behin betiko egin zion agur postu horri, eta Pedro Colognas izendatu zuten bizialdirako<sup>21</sup>.

1456. urtean Gipuzkoako Probintziako Ermandadeak gogor jokatu zuen Ahaide Nagusien eta hauen jarraitzaileen aurka. Ermandadeak honako dorretxe hauek eraitsi egin zizkien: Lazkao, Igartza, Amezketta, Ugarte, Altzaga, Zegamako Murgia, San Milian, Asteasu, Zumarraga, Loiola, Balda, Enparan, Zarautz, Atxaga, Elgeta, Iraeta, Bergara eta beste zenbait (22 dorretxe guztira). Olaso eta Untzueta baino ez zituzten osorik utzi. Ahaide Nagusiak erbesteratu eta ondasunak kendu egin zizkieten. Beraz, dorretxeak ez ziren erregearen aginduz 1457. urtean eraitsi, Garibaik hori badio ere, 1456an Gipuzkoako Ermandadearen aginduz baizik.



13.9. irudia.  
Usurbil. Atxaga  
etxea.

Ondorioz, Ahaide Nagusiek desafio egin zieten Ermandadearene rabakiabe tez utenG ipuzkoakohi ribilduei 1456-VII-31an. Desafioa sinatu zuenetako bat Joan Perez Loiolakoa zen, Oñatz eta Loiolako jauna. Baliteke Loiolako dorretxea erdiraino baino ez eraitsi izana<sup>35</sup>.

Jauntxoen dorreak eraitsita, Gipuzkoako Ermandadeko jendeak “komunitateak” egin zituen. Badirudi “komunitate” haiek gizartea berdintasunean antolatu zutela, eta ez Ahaide Nagusien erakunde hierarkizatu gisara<sup>20</sup>.

Ez dakigu Iraetan eraitsi zuten dorretxea zehatz-mehatz non zegoen; ez eta gero eraiki zuten jauregia ere. Baliteke biak leku berean izatea; izan ere, 1450. urtean Enrike IV.a erregeak beren etxeak berriz eraikitzeke baimena eman zien, baina lehengo lekuan ezin zituzten eraiki erregearen aginduz eraitsitakoak. Iraetakoa, ordea, Ermandadearen aginduz botatkoa zen. Loiolako dorretxea bertako jaunak leku berean berreraiki zuen, goialdea adreiluz eta mudejar estiloari jarraituz eginda. Gainera dorrerik eta gotorlekurik egitea ez zitzaien onartu<sup>6</sup>. Segurua da, jakina, Iraetako dorretxea eta geroko jauregia ibaiatz eskuin aldera zeudela, Zestoako partean, ibaiatz ezker aldeko lurak orduan Debakoak ziren eta. Litekeena da Iraetako dorretxea eta ondoren eraikitako jauregia bertako ermitaren ondo samarrean egotea, uholdeetatik libratzearen, Urola ibairaino tartea utzita.

Bestalde, Arrasateri gebaratarrek desafioa egin zioten urte hartako maiatza edo ekainaz gero, eta hiribildukoak mehatxupean bizi ziren<sup>24</sup>.

### **13.6.2. Azkoitiko desafioa, zestoarren azken ordainketa, etab.**

Zenbait Ahaide Nagusi eta zaldunek Gipuzkoako zortzi hiribilduri egin zioten desafioa. Oñaztarrak eta ganboatarrak elkartu egin ziren horretarako, beren interesak arriskutan ikusi zituztelako. Bandoko buruek, Ahaide Nagusiek eta leinuetako buruek

(Ahaide Nagusien tregoetan sartutakoek) egin zuten desafioa, baina ez denek<sup>9</sup>. Desafioa Azkoitiko hiribilduaren portalean ipini zuten 1456-VII-31n.

Desafiogileak hauek izan ziren: Joan Lopez Lazkanokoa (Lazkao eta Aranako jauna), Martin Ruiz Ganboakoa (Olasoko jauna) eta Ladron Balda (Azkoitiko Baldako jauna). Martin Ruiz Ganboak honako hauen ordezkari gisa ere desafiatu zuen: Joan Perez Loiolakoaren eta Lope Fernandez Zumaikoaren ordezkari gisa. Ladron Baldak beste hauek ere ordezkatu zituen: Joan Alonso Butro (Muxika eta Aramaioko jauna), Pedro Abendaño (Urkizuko jauna), Martin Ruiz Arteagakoa (Arteagako jauna), Joan Beltran Murgia, Antso Martinez Garibaikoa, Pedro Lopez Arkarazokoa (Otalora leinukoa), Joan Ruiz Iribekoa eta Pedro Iribe (Urunaga leinukoak), Fernando Otxoa eta Pedro Zurbano (Zurbano leinukoak), Gebara etxekoen ezkutariak, Fortun Santxez Iraetakoa, Joan Ortiz Zarauzkoa (Zarautz etxeko jauna), Migel Atxaga (Atxagako jauna), Migel Lopez Amezketakoa, Martin Perez Alzega eta Iartzakoa, Pedro Lopez Agirrekoa (Gabiriako leinukoa), Joan Perez Ozaetakoa (Ozaetakoa jauna), Joan Lopez Arriarangoa eta honen seme Lope eta Joan (Arriaran leinukoak), Joan Gartzia Zeraingoa (Zerain leinukoa) eta Ladron Zegama (Zegama leinukoa)<sup>36</sup>.

Hauek guztiez gain, desafiogile ziren ahaide, morroi eta jarraitzaile guztiak, hau da, tregoatan eta bandoetan sartuta zituztenak. Tregoatan egoteak Ahaide Nagusiaren babesa izatea esan nahi zuen, hau da, hiribilduko auzotar izatearen parekoa zen<sup>5</sup>.

Oñaztarrak eta ganboatarrak elkartu egin ziren, beren interesak arriskutan ikusi zituztenean.

Desafioaren helburu, desafioan bertan izen-deiturak ematen direnez, pertsona hauek ziren:

- Azkoitiko Santa Kruzko kofradiako hauek: Joan Martinez Olanokoa batxilerra, Joan Olano semea eta Martin Martinez Aranburukoa.

- Azpeitiko hauek: Joan Perez Bikuñakoa batxilerra, Martin Santxez Astigarribikoa batxilerra, Pedro Ibañez Otalorakoa eta kapare guztiak.

- Debako hauek: Jofre Ibañez Sasiolakoa eta Martin Otxoa, Iñigo eta Errodrigo anaiak, eta Martin Otxoa Irarrazabalgoa.

- Mutrikuko hauek: Joan Martinez Etxezarretakoa eta Fortun Saenz Egurrolakoa.

- Getariako hauek: Otxoa Olano eta Joan Martinez Mantelolakoa.

- Tolosako hauek: Lope Otxoa Olazabalgoa, Lope Saenz Elduaiengoa (iloba), Domenjon Gonzalez Andiakoa, Lope Andia, Joan Lopez Irarrazabalgoa, Martin Ruiz Iurreamendikoa, Joan Lopez Berastegikoa, Lope Iturritza eta Migel Iturritza.

- Ordiziako hauek: Pedro Otxoa Iribekoa, Lope Otxoa (semea) eta Gartzia Ibañez Muxikakoa.

- Segurako hauek: Joan Martinez Aldaolakoa, Joan Perez Amezketakoa eta Iñigo Oñatz.

Desafio-agiria Ahaide Nagusiek Elgoibar ondoko Ubitarten egin zuten, 1456-VII-31n, eskribau Fernan Martinez Garagartzakoa izanik. Agirian lekuko izan ziren, besteak beste, Martin Otxoa Zuatzolakoa, Pasqual Perez Lasaldekoa eta Pero Perez Arriolakoa<sup>36</sup>.

Desafio hartan Fortun Santxez Iraetakoa agertu zen desafiogile gisa, baina Zestoa ez zen desafioaren helburu. Badirudi Ahaide Nagusiei aurka egiten zien pertsona garrantzitsurik ez zegoela Zestoa. Gainera Zestoako Kontzejuak bat egiten zuen Fortun Santxez Iraetakoarekin Arrasateko elizan egindako kalteak ordaintzeko.

Azkoitiko desafiataileetako batek, Joan Ortiz Zarauzkoak, Aiako San Estebanen parrokiako patronatua eskuratu zuen amaren oinordeko gisa 1456-VII-11n<sup>5</sup>.

Desafioaren ondoren Arrasateko Zallospen, 1456-IX-14an Gipuzkoako Batzar Nagusiak ospatu ziren. Bertara, Otxoa Bañez Artazubiagakoak eta Iñigo Santxez Urduñakoak zuten auzian, alde bakoitzak bere agiriak ekarriko zituen. Biak preso zeuden orduan, eta askatu egingo zituzten. Hala ere, hurrengo Batzar Nagusiek auzi hartako beren erabakia jakinaraziko zuten<sup>16</sup>.

1456. urtean Oñatiko jauna bere ondareaz jabetzen saiatu zen. Pedro IV.a Belez Gebarakoa hila zen aurreko urte amaieran, eta Iñigo Belez Gebarakoa anaia izendatu zuen oinordeko. Iñigo elizgizon izateko ikasketak egiten ari zen Erroman, eta han Kalisto III.a aita santuarengandik gutun batzuk lortu zituen. Beste agiri batzuk ere aurkeztu zizkion Gaztelako Enrike IV.a erregeari, eta honek ontzat eman zizkion. Ondorioz, bahiturik zituen ondasunak Iñigo Belez Gebarakoari itzuli zizkion.

Urte hartan egin zuten Ahaide Nagusiek desafio famatua, baina Iñigo Belez urrian bere lurretatik kanpo zebilen. Dena den, Arrasateri desafioa egina zion<sup>34</sup>. Arrasatera, ordea, beste asmo batekin joan zen Joan Bergara zestoarra. Zestoako Kontzejuaren eta Fortun Santxez Iraetakoaren izenean urrezko hogeita bost dobla (Bandako ordenaren ikurra zutenak) eman zizkion Joan Martinez Salinas edo Gatzagakoa eskribauari (Arrasateko auzotarrari). Eliza erretzearen ordainetan ehun dobla ordainduko zizkioten Arrasateko elizari, eta laugarren (azken) epeko hogeita bost dobla jaso izanaren ordainagiria eman zioten orduan. Arrasatearrek konpromisoa hartu zuten ordainketa haren aurka ez joateko, eta bermeak eman zituzten.

Lekuko izan ziren Pero Otxoa Quadrakoa eta Joan Aroka, kurrikaria, arrasatearrak eta Pero Santxez zurgin azpeitiarra. Joan Martinez Salinas edo Gatzagakoa eskribauak idatzi zuen ordainagiria (ikus [XV. m. 22] agiria).

1456-X-30ean Arrasateko alkatearen ordezkoko Joan Perez Oñakoaren aurrean bertako biztanle Migela aurkeztu zen. Hark zioenez, Joan Perez, Pedro Ortiz eta



13.10. irudia.  
Elgoibar. Herriko  
plaza.

Joan umeak Joan Perez Isasigainekoa zenaren eta Marinaren legezko seme eta oinordeko ziren. Umezurtz eta hamabi urtez beherakoak ziren. Beraz, pertsonak eta ondasunak zainduko zituen tutorea behar zuten. Joan Gartzia Barrenetxekoa izendatu zuten tutore.

Tutoreak zioenez, Oñatiko konde izan zen Pedro Belez Gebarakoak eta gero Iñigo Belez Gebarakoa anaia eta oinordekoak, alde batetik, eta Arrasateko Kontzejuak, bestetik, gatazka zibil eta kriminal ugari izan zuten elkarren artean. Hala ere, bi alderdiek

elkarri barkatzeko agiria sinaturik zuten Joan Martinez Gatzagakoa, Joan Ibañez Oleagakoa eta beste zenbait eskribauren aurrean. Joan Gartzia Barrenetxekoa ontzat hartu zituen barkamen haiek, bai bereztat eta bai umezurtzentzat. Joan Bañez Artazubiagakoa eskribauak eta Joan Martinez Salinas edo Gatzagakoa eskribauak egin zuten agiria<sup>37</sup>.

1456. urtean, bestalde, Gipuzkoako alkate nagusi Pedro Sarmiento izendatu zuten<sup>5</sup>.

## 13.7. 1457. URTEA

### 13.7.1. Enrike IV.a Gipuzkoan. Ahaide Nagusiak erbesteraturik

Gipuzkoan Ahaide Nagusien eta hiribilduen artean zegoen giro latza ikusita, 1457. urtean Gaztelako Enrike IV.a Gipuzkoara etorri zen. Lehenago, martxoaren 3an, Gasteizen zen, eta debekatu egin zuen Bizkaiko bandoetako dorretxeak eraikitzea. Tolosan ibili zen. Donostian Migel Martinez Engomezkoak egin zion ongietorria, eta 1457-III-10ean itsasontziz Donostiatik Pasaiara eta Hondarribira joan ziren,

eta handik berriz Donostiara itzuli ziren. Ondoren Getariara eraman zuten erregea itsasoz<sup>16</sup>. Talaia ize-neko etxean ostatu hartu zuen. Erregea Getarian zela balea harrapatu zuten marinelek. Enrike IV.ari aurkeztu zioten, eta erdia Migel Martinezi, Donostiako probestuari, eman zion<sup>15</sup>.

Getariatik erregea Gernikara eta Bermeora joan zen, eta, Bermeon Bizkaiko Foruak zainduko zituela zin eginda, Urduña eta Gasteiza itzuli zen<sup>16</sup>.

1457-III-28an erregeak, Arrasate 1448an erretzeari buruzko auzian, errugabetzat jo zituen Otxoa Bañez Artazubiagakoa, Martin Lopez Olabarrietakoa, Lope Fernandez Osinagakoa eta Errodrigo Fernandez Osinagakoa<sup>34</sup>.

Erregeak bidaia hartan Gipuzkoako eta Bizkaiko dorretxe batzuk eraitsarazi egin zituen. Ondoren, martxoaren 30ean, Gaztelako erregea Gasteizen zen, eta Gipuzkoako Ordenantzak onetsi egin zituen, gero Ordenantzen Liburu Zaharra deitutako zenean bilduko zirenak. Ahaide Nagusien eta bandokoen aurkakoak ziren, hain zuzen. Hilketa, lapurreta eta indarkeria erabiltzen zuen gaizkileen aurkako zigorrak zeuden. Gonzalo Mororen Koadernoko Ordenantzak onetsi eta beste batzuk erantsi zituen. XXIII. titulua duenak, adibidez, ganaduek mendian nola larratu behar zuten

arautzen du<sup>38</sup>. Guztira 146 ordenantza onartu zituen<sup>6</sup>. Horretarako Gipuzkoako herrietatik bi edo hiruna prokuradore ekarrarazi zituen Gasteiza<sup>5</sup>.

1457-III-31n, berriz, Enrike IV.a erregeak Gasteizen Iñigo Belez Gebarakoari eta Joan Alfontso Muxikari agindua eman zien Oñatin eta Aramaion legegabeak eta gaizkileak babes ez zitzaten. Aitzitik, preso hartu eta Gipuzkoako Ermandadearen esku utzi behar zituzten<sup>34</sup>. Bestalde, egun eta leku berean bandoetako dorretxeak suntsitzea agindu zuen: Elgoibarren Olasoko dorrea, Lazkaoko kolazioan lazkanotarren dorrea, Tolosan Iñigo Zaldibiarena, Getarian Fernando Astigarribiarena, Andoainen Lizaurko etxea, San Miliango (Zizurkilgo) etxea, Murgiakoa (Astigarriagakoa), Bergarako Gabiria dorrea eta Ozaetakoa, etab.<sup>5</sup>. Lehen solairuraino eraitsi zituzten dorreak<sup>39</sup>.



13.11. irudia. Zizurkil. San Milian jauregia.

Apirilaren 12an Gaztelako erregea Ozkabarten zen, eta bertan aurreko urtean desafio egin zuten Ahaide Nagusien aurkako epaia eman zuen. Erbesterratu egin zituen, erregearen zerbitzura musulmanen aurka gerra soldatarik jaso gabe egin zezaten, honako hauek: Iñigo Belaz Gebarakoa (bi urterako Cadizko Jimenara), Pedro Abendaño eta Martin Ruiz Arteagakoa (hiru urterako Malagako Esteponara), Joan Lopez Lazkanokoa (hiru urterako Cadizko Jimenara), Martin Ruiz Olasokoa (lau urterako Esteponara), Joan Perez Loiolakoa (lau urterako Jimenara), Ladron Balda (lau urterako Cadizko Jimenara), Fortun Santxez Iraetakoa, Joan Ortiz Zarauzkkoa, Errodrigo Martinez Berroetakoa eta Gontzalo Arantzibia (bi urterako Cadizko Jimenara), Pedro Balda (Ladronen semea), Gaston Olaso (Joan Lopez Ganboakoaren semea), Lope Arriaran, Pedro Agirre eta honen seme zaharrena (urtebeterako Cadizko Jimenara), Zaldibia batxilerra (hiru urterako Esteponara), Lope Garcia de Salazar eta honen suhi Joan Salzedo, Otxoa Murgia eta Lope Salzedo (bi urterako Esteponara), Joan Ugarte eta Lope Murua (urtebeterako Esteponara)<sup>36</sup>,

Pero Lopez Aiarakoa (urtebeterako Palentziako Ampudia herrira) eta Joan Alonso Muxika (urtebeterako Gortean zerbitzatzera)<sup>5</sup>.

Erregeak hiltzera kondenatu zituen erbesteratzezigorra betetzera aurkeztu ez zirenak. Aiztoz lepo egingo zieten, eta haien ondasunak erregearen ganberarentzat izango ziren<sup>36</sup>. Kondenatuetakoz batzuk Ozkabarten ziren erregearen aurrean. Erregeak zigortu guztiei dei egin zien, baina hauek baino ez zitzaizkion joan: Zaldibia batxilerra, Lope Garcia de Salazar, Joan Salzedo eta Joan Muxika<sup>5</sup>. Badirudi Iñigo Belez Gebarakoak ez zuela bere bi urteko erbesteratzea Jimenan igaro; izan ere, hurrengo urtean, 1458-VIII-10ean, erregearen Gortean baitzegoen<sup>41</sup>.

Iraetako Fortun Santxez, esana dugunez, Cadizko Jimenara erbesteratu zen, baina beste batzuk Esteponara joan ziren. Haietako bat Aizarnatik joana ei zen; izan ere, Esteponako gotorlekua 1457an hartu zuten hamabost euskaldunetako bat Domingo Aizarnatea izan omen zen<sup>40</sup>.



13.12. irudia. Aizarnako Aizarnatea edo Aizarnabate baserria.

Justizia behar bezala bideratzeko Gaztelako erregeak urte hartan Gipuzkoako korrejidore Joan Hurtado Mendozakoa izendatu zuen, eta Pero Lopez Alva-koa honen ordezkari<sup>18</sup>.

Egun batzuk lehenago Zangozan, 1457-IV-12an, Iruñeko Martin Peralta “Zaharra” apezpikua hil egin zen. Haren lekua Martin Peralta “Gazteak” hartu zuen Aita Santuak Erroman urte bereko maiatzaren 13an apezpiku izendatu zuenean<sup>14</sup>.

1457. urteko azken hilabeteetan Gaztelako Enrike IV.a erregea Andaluzian zen Ahaide Nagusien erbestealdia kontrolatzen. Irailaren 17an Jaendik Joan Hurtado Mendozakoari, Gipuzkoako korrejidoreari, agindua eman zion haien dorretxeak eraitsi zitzaizkien. Abenduaren 20an, berriz, Madrilen beste agindua eman zuten Ahaide Nagusien etxeak eraiki ez zitezkeen. 1457-XII-22an ere Ahaide Nagusien aurkako zigorrak betetzeko agindua eman zuten<sup>5</sup>.

### 13.7.2. Gipuzkoako Batzarrak eta Ordenantzak

1457. urtean Azpeitian egin ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Joan Hurtado Mendozakoa korrejidorea bertan izan zen, eta Domenjon Gonzalez Andiakoak egin zituen eskribau-lanak. Eskea bidali zioten erregeari, eta hari erantzun zion Enrike IV.ak 1457-IX-17an Jaendik<sup>4</sup>.

1457-IX-14an Seguran bildu ziren Gipuzkoako Batzarrak, eta bertan Leintz bailara eta bertako Gatzaga hiribildua Gipuzkoako Probintziara sartzea eskatu zioten Gaztelako Enrike IV.a erregeari. Leintz bailaratik Gipuzkoarako sarbide nagusia zegoen eta han gaizkile ugari ibiltzen zen. Horregatik komeni zen bailara hura Gipuzkoako Ermandadera sartzea<sup>3</sup>. Ekimen hark, ordea, ez zuen aurrera egin.

Gipuzkoara etortzeko Arabatik sarbide nagusia Arlabangoa zen orduan, Deba arrora zihoana. Beste sarbide bat ere bazuen, ordea, Aizkorri aldean Sandratitik, zeina gero eta garrantzitsuagoa baitzen<sup>42</sup>.

Oñatin egin ziren hurrengo Batzarrak urte hartan urrian, nahiz eta Gipuzkoako parte izan ez. Dirudie-nez Batzar Bereziak izango ziren Oñatikoa. Bertan izan zen Gipuzkoako korrejidorea<sup>4</sup>. Oñatin Domenjon Gonzalez Andiakoak jo zuten guztiek pertsona egokitzat Batzarretako eskribau fiel izan zedin, eta erregeari eskea egin zioten halaxe izenda zezan<sup>29</sup>. Erregeak eskabidea onetsi egin zuen Madrilen 1457-XII-2ko agiriaren bidez<sup>43</sup>.

Domenjon gizon garrantzitsua izan zen Gipuzkoako probintzian. Haren garaian egin zuen behera Ahaide Nagusien botereak eta gora egin zuen, aldi berean, Probintziako Ermandadearenak. Jendeak koplak ere ateratu zituzkien:

“Sagarra eder gezatea,/ gerrian ere ezpatea;/  
Domenjon de Andia/ Gipuzkoako erregia”<sup>45</sup>.

1457. urteko Ordenantzen bidez hasi zen egitura-tzen juridikoki Probintzia, zeinaren ordezkari Batzarrak izan baitziren. Han ez zuten inolako parterik Ahaide Nagusiek. Probintzia hiru ibarretan banatu zen, eta Batzarrak 18 hiribildutan ospatuko ziren hiru ibarretan txandaka. Ibarrek, funtsean, Ermandadeko alkateak hautatzeko egin ziren barrutiak zituzten oinarri, baina aldaketa batzuk eginda. Batetik, Zestoa eta Elgoibar Arrasate eta Bergarako ibarrera gehitu ziren. Bestetik, Erreterria, Oiartzun eta Hondarribia, hain zuzen Segura, Ordizia eta Tolosak osatutako ibarrera bildu ziren, Donostiatik bereizita. Probintziako Batzarrak ez ziren egingo hiru Alkatetza Nagusietan, Oiartzunen, Leintzen eta sukalde gutxien zuten zazpi hiribilduetan. Hauek ziren aipatutako zazpi hiribilduak: Eibar (20 sukalde), Elgeta (28 sukalde), Usurbil (28), Soraluze (26), Urretxu (12,5), Leintz-Gatzaga (11) eta Orio (5)<sup>45</sup>.

Batzarrak egiteko 18 hiribildu izendatu zituzten, eta, hiru ibarretan banaturik, hauek ziren:

1.- Segura, Ordizia, Tolosa, Hernani, Erreterria eta Hondarribia.

2.- Arrasate, Bergara, Elgoibar, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa.

3.- Donostia, Getaria, Zarautz, Zumaia, Deba eta Mutriku<sup>16</sup>.

Hiru ibar horiek irudikatzen dituzte Gipuzkoako gaur egungo armarrarian dauden hiru haginek.

Aipatutako hamazortzi hiribildu horietan Batzar-  
rak ordena honetan egiten ziren: 1) Azkoitia, 2) Zumaia, 3) Hondarribia, 4) Bergara, 5) Mutriku, 6) Tolosa, 7) Arrasate, 8) Donostia, 9) Hernani, 10) Elgoibar, 11) Deba, 12) Errenteria, 13) Getaria, 14) Zestoa, 15) Segura, 16) Azpeitia, 17) Zarautz, eta 18)

Ordizia. Ordena horrek 1845. urtera arte iraun zuen, hain zuzen Oñati Gipuzkoara 1842an bildu zelako.

1457ko Ordenantzek ziotenez, urtero bi Batzar Nagusi egingo zituzten: udaberrian eta neguan. Uda-berrikoa garizumako Pazko egunetik 13 egunera hasi-ko zen eta azarokoa hilaren 14an. Hamaika eguneko Batzarrak izango ziren gehienez. Udazkeneko txan-  
dako Batzarrak 1), 3), 5), 7), 9), 11), 13), 15) eta 17) izendatu ditugun hiribilduetan egingo ziren. Udabe-  
rrikoak, berriz, 2), 4), 6), 8), 10), 12), 14), 16) eta 18) izendatu ditugun hiribilduetan. Azkoitian neguan hasi eta Ordizian amaitzen zen zikloa bederatzirteren buruan. Egia da, hala ere, hainbat urtetan ordena hori ez zela errespetatu.



13.13. irudia. Gipuzkoako Foru Aldundia.

### 13.7.3. Probintziaren ahalmenak

Probintzian herri mota hauek zeuden, txikitik handira: auzoak, leku edo kolazioak, Ermandade-alkatetzako hiribilduak, biztanleak beste hiribildu bateko auzotar ere bazituen hiribilduak (ezin zuten Batzarretara prokuradorerik bidali), hiribildu nagusiak (Batzarretan prokuradorea zutenak) eta urtero Batzarretarako prokuradorea izendatzen zuten Alkatetza Nagusiak. Juduak ere Probintziako parte ziren, baina seinaleekin ibili behar zuten, horretarako erregearen baimenik ez bazuten behintzat.

Probintziak bere ofizialak zituen, eta haiei soldatak ordaintzen zizkien. Hauek ziren: korrejidorea, alkate nagusia eta merio nagusia, Batzarretako prokuradoreak, ermandade-alkateak, prokuradore fiskalak (Ordenantzak eta zigor penal zein kriminalak beteazteko), betearazleak (Batzarrari sukaldeka ordaindu beharrekoa bere garaian jasotzeko ardura zutenak), zenbait eginkizunetarako ofizialak, mezulariak eta eskribau fiela.

Probintziak zenbait eskumen zituen. Gipuzkoa aberasten saiatu behar zuen, nekazaritzako lurak sustatuz. Atzerritarrek ezin zuten Probintziako zergetatik dirurik jaso, herritarrek elikagaiz hornitu behar zituen, ofiziotako jendea zaindu egin behar zuen

(apaizak, botikariak, legegizonak, kofradiatako kideak), lurraldearen mugak zaindu behar zituen, zeharka justizia administratzen zuen, etab.

Erregeak Probintziak aurkeztutako Ordenantzak onartu egiten zituen. Korrejidorea ere erregeak izendatzen zuen; baita prokuradore fiskalak ere, Probintziak proposatu ondoren. Erregeak aseguruia eman ziezaiekeen pertsoneri, eta aseguratuei barkatu egiten zitzairen lehendik egindako hilketa, kalte eta abar. Gipuzkoako biztanle guztiek errege-aseguruia zuten, baina ezin zuten bandoetakoekin ibili. Aseguratu guztiak epailearen mende egoten ziren. Gainera, Probintziak Ahaide Nagusien aurka egitera dei egiten zuenean, joan egin behar zuten.

Erregearen aseguruak Ahaide Nagusiak kontrolatu egiten zituen. Tregoak eta gomendioak debekaturik zituzten, baita desafioak ere. Ahaide Nagusiek ezin zuten hiribildurik mendean hartu. Ahaide Nagusiek ezingo zuten inor Probintziatik erbesteratu.

Probintziak bere ahalmenak gauzatzeko Batzar Bereziak eta Batzar Nagusiak egiten zituen. Batzar Bereziak edozein Kontzeju, Alkatetza edo pertsonak bilaraz zitzaieken. Ermandadeari zegozkion gaiak aztertzeko eta erabakitzeke egiten zen deia, hilketa, erregearen agindua edo indarkeria-kasuak zeudenean<sup>46</sup>.

## 13.8. 1458. URTEA

### 13.8.1. Araba eta Gipuzkoako Ermandadeak, Batzarrak, etab.

1458. urtean Arabako Ermandadeak Ordenantza-koarderno berria osatu zuen, baina ez zuen lortu hiribilduak eta Lur zabala elkartzerik. Gipuzkoan, berriz, Ahaide Nagusien aurkako jarrerak aurrera egin zuen. Gaztelako Enrike IV.a erregeak Madrildik agindua eman zien Kontzejuei Ahaide Nagusiei bahitutako eta enkantean ipinitako ondasunak eros zitzaizten<sup>5</sup>. Erregeak, horrez gain, lehenbailehen Leintz bailara eta ber-

tako Gatzaga hiribildua Gipuzkoako Ermandadean sar zezatela agindu zien<sup>47</sup>.

Deban ere Ermandadea alde batera utzi eta Ahaide Nagusiei jarraitzeagatik zenbait auzotar zigortu egin zituzten, baina 1458-II-11rako zigorrak beterik zituzten edo barkatu egin zitzairen. Horregatik, Bizkaiko prestamero eta Gipuzkoako korrejidore Mendoza jaunak hitz eman zuen Debako Kontzejuaren eta bertako biztanleen aurka gai horregatik ez zuela egingo<sup>1</sup>.

Ahaide Nagusietako bat, Iñigo Belez Gebarakoa zen, ganboatarren burua. 1458. urtean Beatriz Guzmanekin ezkondurik zegoen (Burujon, Escalonilla eta Gramosillako andrea), Alonso Perez de Guzman eta Santxa Ponce de Leonen alaba aberatsarekin<sup>34</sup>.

Azpeitiak eta Azkoitiak 1458-IX-21/29an hitzarmena egin zuten bi Kontzejuek elkarrekin zituzten lurak banandu eta bereizteko. Agirian Azpeititik sinatu zuen lekuko bat Joan Martinez Lasakoa izan zen<sup>48</sup>.

Probintziak Usarragan urte hartan Batzar Bereziak egin zituen<sup>29</sup>.

Nafarroan ere albiste aipagarriak izan ziren 1458. urtean. Udaberrian Martin Peralta “Gaztea” apezpikua hil egin zen, eta Kalisto III.a aita santuak Basilio Bessarion kardinala izendatu zuen Iruñeko apezpiku urte bereko uztailaren 26an<sup>14</sup>. Bestalde, Aragoiko Alfontso V.a hil egin zen 1458-VI-27an, eta anaia Joanek (Nafarroako erregeak) hartu zuen agintea uztailaren 27an Zaragozan zin eginda. Aragoiko Joan II.a erregea izan zen<sup>13</sup>.

Migel Ibañez Lasturkoa alkatea buru zela, Debako Kontzejua Andre Mariaren elizan bildu zen 1458ko

azaroaren 1ean. Ziotenez, herri-lurretan zenbaitek eraikinak egin eta zuhaitzak landaturik zituzten, eta herri-lur haiek bereganatu egin nahi zituzten. Hamabi ordezkari edo diputatu izendatu zituzten herri-lurretako soroak eta eraikinak Kontzejuarentzat hartzeko. Halaber eraikinak, errotak eta zuhaitzak botatzeko ere baimena zuten. Hauek ziren hamabi ordezkariak: Migel Ibañez Lasturkoa, Joan Fernandez Irrarazabalgoa (probestuaren semea), Martin Martinez Sorasukoia, Joan Martinez Aizarnakoa, Pero Otxoa Arriolakoa, Fernando Zubeltzu, Otxoa Aizarna (Arroakolako olagizona), Martin Santxez Leizaolakoa, Migel Peña, Domingo Alos Amilibikoa eta alkate eta fielek kofradiako lau maiordomoetatik hautaturiko beste bi. Salbuespena 1456. urtean mugarritutakoa izango zen. Diputatu hauek izan ziren salbuesitako lur horiek orduan mugarritu zituztenak: Jofre Sasiola, Joan Iñiguez Arriolakoa, Pedro Unsoita, Martin Otxoa Irrarazabalgoa, Pero Joan Irrarazabal, Martin Otxoa Sasiolakoa, Joan Fernandez Irrarazabalgoa, Martin Debaide “Handia”, Migel Ibañez Lasturkoa, Joan Otxoa Arriolakoa, Joan Ibañez Amilibikoa eta Migel Alos Amilibikoa.

13.14. irudia. Arroaerreka. Zubeltzutorre.



Herri-lurretako mendi, gaztainadi, sagasti, intxaurrondo, etxe, errota, eraikin, etab. saltzeko eta ordainagiria luzatzeko ahalordea eman zieten. Hurrengo San Migel eguna baino lehen egingo zuten lan hura, baina aipatutako diputatuek lana zituzten asmoen arabera egiten ez bazuten, aipatutako lau diputatuek eginkizuna zuzen betetzen ez zutenak kendu eta beste batzuk izendatuko zituzten. Mendiren bat saltzea komeni zela irizten baldin bazioten, saldu baino lehen Kontzejuari jakinarazi egingo zioten. Agiria Domingo Martinez Itziarkoa eta Joan Martinez Debakoa

eskribauek idatzi zuten. Ondoren, hamabi diputatuek zin egin zuten.

Azaroaren 5ean Itziarren beste zenbait biztanle bildu zen (haietako asko Arroakoak), eta haiei Domingo Martinez eta Joan Martinez eskribauek hilaren 1ean Deban hamabi diputatuei ahalordea eman zitzaizela jakinarazi zieten. Itziarren bildutakoek zin egin zuten Deban erabakitakoa ontzat emanez (ikus [XV. m. 23] agiria).

## 13.9. 1459. URTEA

### 13.9.1. Tolosako Batzar Nagusiak, gebaratarrak, etab.

1459ko apirilean Tolosan ospatu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Bertan Donostia Gipuzkoako Ermandadean erabat integratu zen. Gainerakoek bezalako eskubide eta betebeharrak izango zituen aurrerantzean. Ordura arte Donostiak, izan ere, Ermandadeak deia egiten zuenean hiribildutik legoa bat baino urrunago ez joateko eskubidea eduki zuen<sup>4</sup>.

Gebaratarrek 1459-VII-7an errentamenduan zituzten Santa Marina Osirondokoa eta San Joan Uzarragakoa. Eliza haietatik Bergarako zenbait auzotarrek errentak jasotzen zituzten, eta haien erdiak Konstantza Aiarari (Oñatiko Iñigo Belez Gebarakoa jaunaren amari) zor zizkiotela aitortu zuten egun hartan egin-

dako agirian. 276.000 marai eta zazpi kapoi ordaindu behar zizkioten Iñigo jaunaren amari<sup>28</sup>.

Ahaide Nagusiek bi urte lehenago Azkoitiko desafioa egin zutenean, desafiogile gisa Gebara etxeko kapare guztiak azaldu ziren. Ez zen Iñigo Belez Gebarakoa izenez aipatzen, baina erregeak 1459-IX-20an Gonzalo Fernandez Peraltakoa batxilerrari gaia iker zezala agindu zion. Dena den, 1459ko irailean Tolodon zegoen Gaztelako Enrike IV.a erregearen alde, bertan erregearen Isabel arrebaren (gero Isabel *Katolikoa* izango zenaren) aldekoak matxinatu zirenean<sup>34</sup>.

Nafarroan Iruñeko apezpiku Basilio Bessarion kardinala zela, elizbarrutiaren ardurua Joan Michaelibus bikario nagusiak zuen. 1459-IV-10erako elizbarrutiko sinodorako dei egin zuen, eta Iruñean beste hogeita hamar konstituzio onartu zituzten<sup>14</sup>.

## 13.10. 1460. URTEA

### 13.10.1. Erbestetik etxera, Gipuzkoako Batzarrak, eta beste

1460-VII-20an Gaztelako Enrike IV.a erregeak zedula idatzi zuen 1457-IV-21eko aginduz erbesteratuta zeuden Ahaide Nagusiei etxera joateko baimena emanez. Hala ere, erregeari mendekotasun-

zina egin eta adierazitako baldintza guztiak beteko zituzten<sup>49</sup>.

Sei egun geroago, 1457-VII-26an, errege berak Segovian beste zedula bat sinatu zuen. Ahaide Nagusiek etxeak eraiki ahal izango zituzten, baina erregearen aginduz botatakoak ezingo ziren leku berean

berreraiki. Gainera, etxe berriak lauak izango ziren, hau da, ez ziren gotorleku izango<sup>50</sup>. Beste era batera esanda, bonbardaz tiro eginda kanoi-balaz hormak botatzeko moduko etxeak izango ziren.

Erregea kezkatu zegoen Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako ordena publikoaz, eta, ondorioz, agiria bidali zuen, 1460-X-28an Olmedon sinatuta, ermandade-alkateek beren lana egin zezaten. Herrietan gerradeiak eta eskandaluak egiten zituztenak legeen arabera zigortu egin behar zituzten. Gainera, Ahaide Nagusiekin tregoatan zeuden edo loturak zituzten pertsonak haiengandik askatu eta segurtasuna eskaini behar zieten. Erregea baino ez zuten jauntzat hartu behar<sup>51</sup>.

Erregeak eskainitako barkamenaz baliatuta, zenbait Ahaide Nagusi etxera itzuli zen. Joan Lopez Lazkanokoa izan zen haietako bat. Joan Perez Loiolakokoa ere erregeak bere ondasunak itzuli egin zizkion eta lehengo dorretxea jauregi bihurtzeko baimena ere eman zion. Ez ordea harri landuz, adreiluz baizik. Martin Ruiz Olasoko jauna ere orduan itzuli zen bere etxera erbestetik.

Fortun Santxez Iraetakoa erregeak bere barkamen-agiria sinatu aurretik etxera itzulia zen, zigortzat bi urteko erbestealdia baino ez zuelako. Joan Ortiz

Zarauzkoa, berriz, erbestetik etxera zetorrela Miranda de Ebron itota hil egin zen mando gainean ibaia gurutzatzen ari zela<sup>5</sup>.

Gipuzkoan, bestalde, 1460. urtean lehenbizi Bergaran Batzar Nagusiak izan ziren. Bertan Arieriako Alkatetza Nagusiari Donostiako Forua ematea erabaki zuten. Urte hartako urrian, berriz, Batzar Bereziak bildu ziren Bidaniko Usarragan<sup>16</sup>.

1460. urtean Otxoa Martinez Beduakoak bere ondasunekin maiorazkoa sortu zuen<sup>40</sup>. Bere garrantzia izan zuen gero, 1486. urtean, hain zuzen orduan Beduako lurak Zestoako Udalerriko geratu zirelako.

Zestoan garrantzia zuen beste etxe bat Lilikoa zen. 1460. urte inguruan jaio zen Domenja Lili, Joan Beltran Lilikoaren eta Katalina Hurtado Mendozakoaren alaba. Martin Diaz Lilikoa (ondorengorik gabe hila) eta Enrike Lili (Alacha-ko lehen kondea) izan zituen anaia<sup>52</sup>.

Nafarroan, berriz, agaramontarrak eta beaumontarrak gerran ibili ondoren, Joan I.a erregeak eta Bianako Printzeak bakea sinatu zuten Batzelonan 1460-I-2an, baina urte hartan bertan, abenduaren 2an, aitak berriz ere semea Lleidan preso hartu zuen<sup>14</sup>.

13.15. irudia. Zestoa. Beduaundi.



## 13.11. HAMAHIRUGARREN KAPITULUKO OHARRAK

<sup>1</sup> HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. Archivo Municipal de Deba. (1181-1520). I. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 123. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2006. (72-75, 148-151. or.). (Oharra: 72-75. orrialdeetan argitaratutako agiriaz transkribatzaileek Pedro Mendoza jotzen dute Gipuzkoako korrejidoretzat, baina, gure ustez, Joan Hurtado Mendozakoa zen korrejidorea).

<sup>2</sup> ROLDAN GUAL, J. M. *Villas de asiento de las Juntas Generales y tribunal del corregimiento de Guipuzcoa (hasta 1550)*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (44. or.).

<sup>3</sup> CRESPO RICO, M. A. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Mondragón. Tomo III (1451-1470). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 68. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1996. (188-193, 196-198, 248-249. or.).

<sup>4</sup> ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa. Índice de las celebradas en los siglos XIV y XV*, in Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. XXXIV. urtea. 3 eta 4. koadernoak, 1978. (543-549. or.).

<sup>5</sup> ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (76-79, 81, 82, 85, 87, 100, 104, 105, 107, 111, 123, 125, 274, 275, 285, 328. or.).

<sup>6</sup> GARCIA FERNANDEZ, E. “*Para la buena gobernación e regimiento de la villa e sus veçinos e pueblo e republica*”: de los Fueros a las Ordenanzas municipales de la Provincia de Guipúzcoa (siglos XII-XVI), in El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). Iturriak, 3. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (32, 33. or.).

<sup>7</sup> LEMA PUEYO, J. A. *Dos instituciones en la formación de Gipuzkoa: las Alcaldías de la Hermandad y las Merindades del Corregimiento*, in Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (86, 88. or.).

<sup>8</sup> MARIN PAREDES, J. A. “Semejante Pariente Mayor”. Parentesco, solar, comunidad y linaje en la institución de un Pariente Mayor de Gipuzkoa: los señores del solar de Oñaz y Loyola (siglos XIV-XVI). Ikerketak, 5. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1998. (271. or.).

<sup>9</sup> ACHON INSAUSTI, J. A. “A voz de concejo”. Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa. Ikerlanak, 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (112, 142. or.).

<sup>10</sup> ALVAREZ FERNANDEZ, C. eta beste. El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (85, 192, 279-310, 359, 360, 385-387, 449, 450. or.).

<sup>11</sup> RUIZ FERNANDEZ, A. eta AGIRRE GARCIA, J. Euskal Herriko Erdi Aroaren historiako dokumentu idatzi eta grafikoen iruzkin-ereduak. UEU argit. Bilbo, 2006. (191. or.).

<sup>12</sup> LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1968. (141 145-214, 226. or.).

<sup>13</sup> LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. III. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (263-269, 271, 274, 275, 282, 288, 289. or.).

<sup>14</sup> GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II. alea. Iruñea, 1979. (509-511, 518, 526, 528, 529, 538, 539, 543. or.).

<sup>15</sup> TXUEKA ISASTI, F. *Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua*, in Boletín LXIV-1-2008. Euskalerraren Adiskideen Elkarte. Donostia, 2008. (116-119. or.).

<sup>16</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *El origen de las Juntas de Gipuzkoa*, in Historia de las Juntas Generales y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1992. (17, 18, 33, 35-41, 63, 64, 71. or.).

<sup>17</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. eta AIERBE IRIBAR, R. M. *Autoría y contenido del Libro de los Bollones*, in El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (112. or.).

<sup>18</sup> TENA GARCIA, M. S. La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia, 1997. (374. or.).

<sup>19</sup> ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. eta beste. Libro de autos judiciales de la alcaldía (1419-1499) y libro de acuerdos y decretos municipales (1463) de la villa de Bilbao. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 55. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1995. (90, 91. or.).

<sup>20</sup> AROZENA, I. *Los Parientes Mayores y las guerras de bandos en Guipúzcoa y Vizcaya*, in Historia del Pueblo Vasco, 1. Erein argit. Donostia, 1978. (155, 169. or.).

<sup>21</sup> GOÑI GAZTANBIDE, J. *El Oficial Foráneo de San Sebastián del siglo XIV al XIX*, in Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián. Donostia, 1969. (13-16, 37-50. or.).

<sup>22</sup> RUIZ DE LOIZAGA, S. Documentación Medieval de la Diócesis de San Sebastián en el Archivo Vaticano (Siglos XIV-XV). Tuesta bilduma, 2. Erroma, 2000. (146-148. or.).

<sup>23</sup> HIDALGO DE CISNEROS, C. eta beste. Colección documental del Archivo Municipal de Durango. Pelitos. IV. alea. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 71. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1979. (3-8, 41, 42. or.).

<sup>24</sup> LEMA PUEYO, J. A. *“Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo”*: de la Hermandad General a la formación de las Juntas de la Provincia de Guipúzcoa (siglos XIV-XVI), in El triunfo de las elites urbanas gui-

puzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). (76-81. or.).

<sup>25</sup> PFANDAL, L. Juana la loca. Austral bilduma, 17. Espasa - Calpe, S. A. argit. Madril, 1945. (8, 9. or.).

<sup>26</sup> ORELLA, J. L. eta beste. Euskaldunak Historian barrena. Jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1989. (95. or.).

<sup>27</sup> AROZENA, F. Guipúzcoa en la historia. Minotauro argit. Madril, 1964. (160. or.).

<sup>28</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (S. XI-XVI). II Documentos. Gipuzkoako Foru Aldundia, 1985. (122-147. or.).

<sup>20</sup> LARRAÑAGA ZULUETA, M. eta LEMA PUEYO, J. A. *Regesta de las Juntas Generales y Particulares de Gipuzkoa hasta 1550*, in *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (32, 87, 107, 108, 152, 166. or.).

<sup>30</sup> XX. Santa Cruz de Zestoa. Varios capítulos de las ordenanzas del Cuaderno de la Provincia de Gipuzkoa. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Varela. Pleitos fenecidos, 365/1. (19-24. or.).

<sup>31</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa hasta 1550*, in *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (152, 159, 166. or.).

<sup>32</sup> Martin "Got" hau agota zelakoan gaude.

<sup>33</sup> XX Compromiso y sentencia arbitral pronunciada por D. Martin Ruiz de Ganboa y D. Martín López de Lazkano en 23 de julio de 1455 sobre las diferencias que tenía la Provincia con el valle de Oiartzun. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. JD IM 1/11/11.

<sup>34</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (S. XI-XVI). I Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia, 1985. (185-187, 189-191, 193, 199, 203, 324. or.).

<sup>35</sup> XX. Extractos de noticias relativas a los Bandos de los Parientes Mayores de los años 1420, 1446 y 1456. Loiolako Artxibo Historikoa. Loiola familia. 0002/001. Isastiren eranskina, 20. (1-3. or.).

<sup>36</sup> XX. 1456, 1457. Desafío de los Parientes Mayores a las villas guipuzcoanas y sentencia de destierro contra los Parientes Mayores de Gipuzkoa dada por el rey D. Enrique en Santo Domingo de la Calzada. Loiolako Artxibo Historikoa. Loiola familia. 4, 1-4-1. 3. agiria. (1-8. or.).

<sup>37</sup> XX. 1470. Cédula real de don Enrique, en que se conforma la escritura de concordia celebrada entre el conde de Oñati y los vecinos de varios lugares sobre el perdón de la quema de Mondragón. Oñatiko Udal Artxiboa. Documentación de particulares. Documentación del conde de Oñati. 1148. kutxa, 3. espedientea. (57, 58. or.). (Oharra: agiri hau original zaharragoaren kopia da).

<sup>38</sup> XX. 1457-III-30. Gasteiz. Ordenanzas de la Provincia relativas a pastos del ganado. Traslado de 1553-

IV-25 realizado por Migel Idiakaitz. Zumarragako Udal Artxiboa. 1. liburua, 1. espedientea. Relaciones del Ayuntamiento. Relaciones con la Diputación. Asuntos Generales. E/2/III. (1-7. or.).

<sup>39</sup> MARTINEZ ISASTIKOA, L. Compendio historial de Guipúzcoa. Tomo V. Parte I. Antiguos recuerdos de Guipúzcoa. Amigos del Libro Vasco argit. Bilbo, 1985. (74. or.).

<sup>40</sup> ERENTXUN ONZALO, J. Apuntes históricos de la villa de Santa Cruz de Cestona. Zarautz, 1948. (30, 53. or.).

<sup>41</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. *Autoría y contenido del Libro de los Bollones*, in El Libro de Los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (111. or.).

<sup>42</sup> BARRENA OSORO, E. Gipuzkoako Komunikabideen Historia. 1/ Aintzinaroa eta Ertaroa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1991. (138. or.).

<sup>43</sup> ZUMALDE IGARTUA, I. Colección documental del Archivo Municipal de Oñati (1149-1492). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 50. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1994. (20-23. or.).

<sup>44</sup> ONAIDIA, S. Euskal Literatura (I). Etor argit. Bilbo, 1972. (47. or.).

<sup>45</sup> TRUCHUELO GARCIA, S. La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII). Bekak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997. (64, 73. or.).

<sup>46</sup> ORELLA UNZUE, J. L. *Instituciones de Gipuzkoa en el Libro de los Bollones*, in El Libro de los Bollones. Iturriak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (157-166, 172, 173. or.).

<sup>47</sup> BARRUSO BAREZ, P. *La formación del espacio guipuzcoano a través de la documentación de las Juntas Generales*, in La Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (33. or.).

<sup>48</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. Documentación medieval del Archivo Municipal de Azkoitia (m.s. XIII-1500). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 45. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1993. (97. or.).

<sup>49</sup> XX. 1460-VII-20. Segovia. Real cédula por la que se da licencia a varios Parientes Mayores para regresar a sus pueblos desde los que se hallaban desterrados, bajo el juramento que hicieron de cumplir los capítulos que expresa. GAO. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. JD IM 1/6/9. (1-7. or.).

<sup>50</sup> XX. 1460-VII-26. Segovia. Real cédula por la que se concede a los Parientes Mayores que fueron desterrados a Andalucía, para que pudiesen edificar casas llanas sin torres ni fortaleza alguna, con tal de que lo hiciesen en solares donde no existieron las que por orden del rey fueron derribadas. GAO. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. JD IM 1/6/10.

<sup>51</sup> XX. 1460-X-28. Olmedo. Real provisión del rey don Enrique IV, para que los Alcaldes de la Hermandad hagan pesquisas y procedan entre los que hacen apellidos, levantadas y escandalizan los pueblos, y cas-

tiguen conforme las leyes dispuestas, y que puedan asegurar a cualesquiera particulares o lugares que tengan treguas o contiendas con Parientes Mayores u otros. GAO. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa. JD IM 1/6/8. (1-4. or.).

<sup>52</sup> XX. Arboles genealógicos de los poseedores de Lili. San Telmo Museoa. Donostia. Lilitarren artxiboa. 22. paper sorta [22.5]. (3, 4. or.).